EMAKUNDE

EIBARKO UDALA

ANDRAZKOEN FABORE

# EIBARKO UDALA

# ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERARAKO ETA KOORDINAZIORAKO TOKIKO BIGARREN PROTOKOLOA

## GENERO-INDARKERIAREN ETA SEXU-ERASOEN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKOA

# Edukiak

ADIERAZPENAK ..... 5

AKORDIOAK ..... 7

I. PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOA ..... 11

II. GENERO-INDARKERIA ETA SEXU-ERASOAK BIZI DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO ETA ESKU HARTZEKO PRINTZIPIO NAGUSIAK ..... 15

III. ESKU HARTZEKO ANTOLAKETA ETA GENERO-INDARKERIA NAHIZ SEXU-ERASOAK BIZI DITUZTEN EMAKUMEENTZAKO SARBIDEAK ..... 20

- III.1. Esku-hartzearen antolaketa ..... 20
- III.2. Genero-indarkeria eta sexu-erasoak bizi dituzten emakumeentzako sarbideak ..... 21

IV. ESKU-HARTZEAREN EZAUGARRI OROKORRAK ETA ZERBITZU BAKOITZEKO ERANTZUKIZUNA ..... 23

- IV.1. Urgentziazko arreta genero-indarkeria kasuetan ..... 23
- IV.2. Lehentasunezko arreta genero-indarkeria kasuetan ..... 24
- IV.3. Urgentziazko arreta gertatu berri diren sexu-eraso kasuetan ..... 25
- IV.4. Arreta gertatu berri ez diren sexu-erasoetan ..... 26
- IV.5. Informazio eta koordinazio eskariak esku-hartze prozesuan. ..... 26
- IV.6. Esku-hartze prozesuaren amaiera ..... 27

V. GENERO-INDARKERIA ETA SEXU-ERASO KASUETAN ARRETA EMATEKO ETA KOORDINATZEKO PROZEDURAK ..... 28

- V.1. ERTZAINTZA ..... 28
  - V.1.1. Jarduera erasoa gertatu den lekuan ..... 28
  - V.1.2. Jarduera sexu-eraso edo sexu-abusu kasuetan ..... 29
  - V.1.3. Arreta adingabeei ..... 29
  - V.1.4. Salaketa jasotzea ..... 30
  - V.1.5. Biktimari arreta ..... 31
  - V.1.6. Informazioa ematea eta kasua Gizarte-zerbitzuetara bideratzea ..... 31
  - V.1.7. Informazioa ematea eta Udaltzaingora bideratzea ..... 33
- V.2. UDALTZAINGOA ..... 33
  - V.2.1. Lehen jarduera ..... 34
- V.3. OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK ..... 35
- A. JARDUERA GENERO-INDARKERIA ETA SEXU-ERASO LEHENTASUNEZKO KASUETAN 36
  - V.3.1. Emakumea beste zerbitzu batetik bideratu duten kasuetan ..... 36
  - V.3.2. Emakumeak Gizarte-zerbitzuetara jotzen duen kasuetan ..... 36
  - V.3.3. Emakumeak telefonoz deitzen duen kasuetan ..... 36
  - V.3.4. Lehen elkarrizketa ..... 37
  - V.3.5. Emakumeak prozesu aurreko aholku juridikoa behar duenean ..... 37

V.3.6. Gizarte-zerbitzuetan Babesteko Agindua eskatzea ........................................ 39
V.3.7. Emakumeak salaketa ez jartzea erabakitzen duenean .................................. 39
V.3.8. Emakumeak, egoera baloratu ondoren, urgentziazko bizitokia behar duenean... 40
V.3.9. Laguntzeko baliabideak erabiltzea ............................................................ 41
B. JARDUERA SEXU-ERASO ETA GENERO-INDARKERIA URGENTZIAZKO KASUETAN.... 42
B.2. Jarduera Gizarte-zerbitzuetan urgentziazko kasuetan ..................................... 43
V.4. OSASUN-ZENTROAK ...................................................................................... 45
V.4.1. Lehen arreta eta urgentziazko arreta Osasun-zentroan ................................. 45
V.4.2. Urgentziazko arreta Etengabeko Arreta Guneetan......................................... 46
V.5. IKASTETXEAK ............................................................................................. 47
V.5.1. Ekintzak ...................................................................................................... 47
V.5.2. Prozedura.................................................................................................... 48
V.6. LANBIDE ....................................................................................................... 50
A. Emakume erabiltzailearekiko jarduera urgentziazko genero-indarkeria kasuetan........ 50
B. Emakume erabiltzailearekiko jarduera genero-indarkeria kasuetan.......................... 50
VI. UDALAREN ADIERAZPENEI ETA EKINTZA PUBLIKOEI BURUZKO ZEHAZTAPENAK. ........ 51
VII. GENERO INDARKERIAREN EDO SEXU ERASOEN ONDORIOZ EMAKUMEA HILTZEN DENERAKO PROZEDURA ....................................................................................... 52
VIII. LANBIDEKO SEKRETUA ETA SALAKETA.............................................................. 53
IX. PROTOKOLOA BETETZEKO KOORDINAZIO-MAHAIA ETA JARRAIPENERAKO BATZORDEA55
ERANSKINA 1: Direktorioa ......................................................................................... 57
ERANSKINA 2: DATU PERTSONALAK JASOTZEKO ADOSTASUNA .................................... 59
ERANSKINA 3: DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUNA .................................... 61
ERANSKINA 4: FM0093............................................................................................... 63
ERANSKINA 5: FM0161............................................................................................... 64
ERANSKINA 6: DATUAK JASOTZEKO FITXA ................................................................ 65

Eibarren, 2015eko urtarrilaren 28an

**BILDU DIRA**

Miguel De los Toyos Nazabal, Eibarko Udaleko alkate-presidentea

Maria Jose Lasa Dorronsoro, Eibarko Udaleko Berdintasun Saileko eta Gizarte-zerbitzuetako teknikaria

Patxi Guirado Roca, Eibarko Ertzain-etxeko Unitate-burua

Jon Crucelaegui, Eibarko udaltzainen burua

Eduardo Gonzalez Lombide, Debabarrena ESIko gerentea

Alvaro Iruin Sanz, Osasun Mentaleko zuzendaria

Gema Gonzalez de Txabarri Miranda, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lurralde-ordezkaria

Nerea del Campo Aguirre, emakumeen elkarteetako ordezkaria.

EMAKUNDE

EIBARKO UDALA

# ADIERAZPENAK

- Emakumeen aurkako indarkeria, eta sexu-genero-sexualitatea eskemako agindu sozialak urratzen dituzten pertsonek jasaten duten indarkeria, duintasunaren eta osotasun fisiko nahiz moralaren aurkako eraso larria dugu, eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa nabarmena eta onartezina da.

- Emakumeen aurkako indarkeriak, emakumeek bizitzeko eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko desberdintasun egoeran ditu erroak. Gizartean eta familian egiten den sexuaren araberako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio desberdintasunari, banaketa horrek emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu.

- Indarkeria sexista desberdintasunaren adierazpidea dugu, seguruenik larriena. Horrez gain, gizarte-kontrolerako funtsezko tresna ere bada, desberdintasuna mantendu eta iraunarazten baitu.

- Egiturazko indarkeria eta indarkeria sinbolikoa pertsonen arteko indarkeriaren euskarria dira, jokabideetan zuzenki eta linealki islatzen ez diren arren. Izan ere, pertsona bera eta horren istorioa dira indarkeria horien bitarteko subjektiboa.

- Zuzeneko indarkeria da errazen identifikatzen den indarkeria, pertsona batek beste pertsona baten aurka zuzentzen duen berariazko ekintza baita. Indarkeria horrek adierazpide desberdinak ditu, baita ageriko ondorioak, zein horren agerikoak ez diren ondorioak ere; jasaten duenaren heriotza dakar, muturreko adierazpideetan, indarkeria horrek.

- Zuzeneko indarkeria ez da bakana emakumeen bizitzetan, izan ere, sozializatzeko moduarekin eta barneratze-prozesuarekin dauka zerikusia.

- Gorputz guztiek ez daude, intentsitate eta modu berean, indarkeria jasateko arriskuan; izan ere, gorputz batzuetan, intersekzionalitatea dela eta,

zapalkuntza-mota desberdinak gurutzatzen dira (emakume oso zaharrak edo oso gazteak; elbarritasunen bat edo funtzionamendu desberdina dutenak; tradiziozko feminitatearen estereotipoa, fisikoa zein jokabidezkoa, urratzen dutenak; eta abar) eta horiek dira indarkeriaren ondorio larrienak jasan ahal dutenak.

- Indarkeria normalizatzen, ukatzen edo minimizatzen denean, indarkeria hori bizitzeak erresistentziak eta tolerantzia-maila desberdinak sortzen ditu.

- Zuzeneko indarkeria zenbait espaziotan agertzen da. Batetik, publikoak deritzegun espazioetan: eskola, kalea, lana, garraiobideak, jolas edo aisialdi-guneak, gune birtualak, eta abar. Bestetik, pribatuak deritzegun espazioetan: familia, bikote-harremanak.

- Indarkeria sexista jasaten duten emakumeak biktimak direla onartu egiten dugu. Izan ere, indarkeria horrek genero-desberdintasunean du jatorria, eta ondorioz emakumeei, direnagatik, ez egiten dutenagatik, min ematea du helburu.

- Emakumeek dira erantzuleak harreman desegokiak edukitzeagatik, edota egiturazko indarkeria eta indarkeria sinbolikoaren ondorioz, arriskua dakarten harremanak amaitutzat ez emateagatik. Emakumeak ez dira, ordea, jasaten duten indarkeriaren erantzuleak, indarkeria hori erabiltzen duena baita horren erantzulea. Ildo beretik, protokolo honen ekintzak kolektibo horri daude zuzenduta, emakumeei, hain zuzen ere.

- Zerbitzu publikoen laguntza eskatzen duten emakume gehienak amak ere badira. Horregatik, berebizikoa da seme-alaben babesa ere bermatzea, amak bikotearengandik sufritzen duen indarkeriaren biktima zuzenak baitira.

# AKORDIOAK

**LEHENA:** Erakundeen arteko Jarduerarako eta Koordinaziorako Tokiko Bigarren Protokoloa sinatzea, Eibarko udalerrian genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasaten duten emakumeei harrera hobea emateko mekanismoak behar baitira.

**BIGARRENA**: protokoloari jarraipena emango dion koordinazio-egitura mantentzea. Beraz, informazioa emateko eta jarraipena egiteko Mahai Teknikoa zein mahai Politikoa sortzea.

**HIRUGARRENA:** Genero-indarkeria kasuetan, esku-hartzea udal berdintasun-politikekin harmonizatzea; horrela, udal sail guztiek garatuko dituzte prestakuntza, detekzio, prebentzio eta deribazio-ekintzak, eta indarkeria matxistaren aurkako borroka zeharkakotasunaren printzipioari eutsiko dio udal politika horietan.

**LAUGARRENA:** Koordinaziorako protokoloaren jarraipena Berdintasun-teknikariari eta Gizarte-zerbitzuetan gai honen arduraduna denari esleitzea.

**BOSGARRENA:** Erakunde bakoitzean erreferentzia izango den pertsona bat izendatzea, protokoloan adostutako koordinazio-zereginen jarraipena egin dezan. Halaber, titular hori ez dagoen aldietan zeregin horietaz arduratuko den ordezkoa ere izendatuko da.

**SEIGARRENA:** Genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeak artatzen dituzten profesionalen artean, akordioa sinatu duten erakunde guztietako profesionalen zein menpekoak diren profesionalen artean, Jarduerarako eta Koordinaziorako Protokolo honen edukiak banatzea.

**ZAZPIGARRENA:** Akordioa sinatu duten erakundeen jarduera bideratuko da, protokolo honen II ataleko ("Genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumeei laguntzeko eta esku hartzeko printzipio nagusiak") jarduerarako printzipioei jarraiki:

**ZORTZIGARRENA:** protokolo honen V atalean garatzen diren prozedurak eta mekanismoak aintzat hartuta, sinatu duten erakundeek jarduera koordinatua izatea.

**BEDERATZIGARRENA**: Erakunde bakoitzak bere langileei zuzendutako prestakuntza-ekintzak antolatzea, I Protokoloaren ebaluazioaren emaitzak ezagut ditzaten. Gainera, prestakuntza jarraituko programetan parte hartzea, gaiaren konplexutasuna kontuan hartuz, profesional guztiek genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumeei arreta egokia eman diezaieten.

**HAMARGARRENA:** Udalerrian genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeen erregistroa ahalik eta zehatzena izatea. Horretarako, baliabideei buruzko informazioa eskatzen duten emakumeak sartuko dira estatistiketan, nahiz eta baliabide horiek erabili ez. Datu horien analisiaren helburua honakoa izango da: biztanle ukitu mota, horren beharrizanak eta laguntza eskatzeko prozesuan topa ditzakeen zailtasunak ahalik eta hoberen ezagutzea.

**HAMAIKAGARRENA:** Protokoloaren funtzionamenduaren ebaluazio jarraitua abian jartzea. Honek berehala ekarriko ditu arreta hobetzeko behar diren hobekuntzak, eta protokolo honetan agertzen ez diren indarkeriaren bestelako adierazpideak ere uztartuko dira.

**HAMABIGARRENA:** Sinatutako akordioak betetzea eta betearaztea.

Eibarren, 2015eko urtarrilaren 28an

**SINATZAILEAK**

Miguel De los Toyos Nazabal, Eibarko Udaleko alkate-presidentea

Gema Gonzalez de Txabarri Miranda, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lurralde-ordezkaria

Patxi Guirado Roca, Eibarko Ertzain-etxeko unitate-burua

Jon Crucelaegui Santillan, Eibarko udaltzainen burua

Eduardo Gonzalez Lombide, Debabarrena ESIko gerentea

Alvaro Iruin Sanz, Osasun Mentaleko zuzendaria

Maria Jose Lasa Dorronsoro, Eibarko Udaleko Berdintasun Saileko eta Gizarte-zerbitzuetako teknikaria

Nerea del Campo Aguirre, emakumeen elkarteetako ordezkaria.

EMAKUNDE

EIBARKO UDALA

# *GENERO-INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERARAKO ETA KOORDINAZIORAKO TOKIKO BIGARREN PROTOKOLOA* [1]

[1] "Adierazpenak" eta "Akordioak" ataletan zehazten den moduan, sinatu duten entitateek Tokiko Bigarren Protokoloa berraztertzeko eta zabaltzeko konpromisoa dute. Protokolo honek indarkeria mota biretarako prozedura zehazten du: bata, genero-indarkeria (harreman afektiboa edota sexuala, elkarrekin bizi izanda hala ez, momentuko harremana zein iraganakoa); bestea, modu desberdinetan azal daitezkeen sexu-erasoak. Hala ere, protokoloaren izena alda liteke, bestelako indarkeria mota batzuk uztartzen direnean.

## I. PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOA

Honako hau kontuan hartuta:

- Mugimendu feministari esker, emakumeenganako indarkeria ikusgai bihurtu den arazoa dela. Eurengatik ikasi dugu errealitate bat izendatzeko modua ulertzeko modu bat ere badela.

- Genero-indarkeriari buruzko eztabaida terminologikoan ikuspuntu ezberdinetako gizarte-eragileek parte hartu dutela (besteak beste akademikoak, legalak, psikologikoak eta sozialak), eta ez dutela beti perspektiba feminista batetik egin.

- Proposamen terminologikoak, behar nominatibo bat adierazteaz gain, interes politikoak erakusten dituela.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak errealitate hau hobeto ezagutzeko, datuak hobeto sistematizatzeko, eta analisia hobetzeko terminologia onartu duela.

Dokumentuan hurrengo terminologia erabiliko da:

### INDARKERIA MATXISTA

Gorputz *intersex*ak deritzonak, baita trangeneroak, homosexualak, lesbianak eta tradizioz egokitutako genero-eskemak urratzen dituzten emakumeak eta gizonak errealitate sozialak dira, betidanik sexu/genero/sexualitatea eskema patriarkala urratu duten errealitate sozialak; izan ere, patriarkatuak normaltasunaren parametrotzat eskaini duen harreman aldebakarra eta aldaezinaren eskemari bota diote erronka.

Eskema hau urratzen duten gorputz guztiak, estruktura biologikoan nahiz jokabide sexualean, indarkeria matxista jasateko arriskuan daude, sexu/genero/sexualitatea eskema iraunarazteko kontrol-mekanismoa baita jasaten duten indarkeria.

Indarkeria horrek zenbait mekanismo ditu eskema tradizionalari aurre egiten dioten pertsonak baztertzeko, bazterketa eta gaitzespena sufriarazteko, patologizazioa ..., hau da, indarkeria matxistaren zenbait forma instituzionalizatzeko. Halaber, haurtzarotik eta bizitza osoan zehar, gorputz intsumiso horiek jasaten duten zuzeneko indarkeriak adierazpen desberdinak ditu.

## Indarkeria Sexista

Emakume guztiak, hau da sexu/genero eskema tradizionalean sinbolizatutako gorputz guztiak, dira indarkeria sexistaren objektuak. Ez dira indarkeria horren objektuak egiten dutenagatik, direnagatik eta irudikatzen dutenagatik baizik. Sexismoaren kontzeptua erabiltzeak kontu desberdinak azpimarratzen ditu: emakumeek feminitatearen eskema tradizionalari eusteko egituren presioa, arauak eta tradizioak. Horrela, sexismoak onartu egiten du, emakumeen erresistentziak eta erreberiak desagerrarazteko, indarkeria erabiltzeko pribilegio maskulinoa, aurretiaz ezarritako gidoi baten bidez: beldurraren, eta zigorraren gidoia, hain zuzen ere.

Emakume guztiek dute indarkeria sexista sufritzeko arriskua, baina ez beti modu berean. Izan ere, intersekzionalitatea sortzen duten bestelako errealitate batzuk ere badaude: adina, jatorria, gizarte-egoera, sexu-aukera, itxura fisikoa, erregulartasun administratiboa, ahalmen funtzionalak eta intelektualak eta abar. Faktore horiek kolektibo batzuen urrakortasuna handitzen dute, eta aintzat hartu behar dira esku-hartzeko estrategiak zehazten direnean.

Indarkeria sexista da *emakumeen aurkako indarkeria* kontzeptua erabilita definitu eta definitzen duguna. Kontzeptu hau mugatuegia dela konturatu gara, eta pedagogia politikoa behar izango dugu, horren erabilera sendotu baita herritarren artean. Nazioarteko instantzietan eta dokumentuetan *genero-indarkeria* terminoa erabiltzen dute indarkeria honi buruz hitz egiteko. Dena dela, aurrerago azalduko dugun moduan, kontzeptu hori indarkeriaren adierazpen zehatz bati dagokio.

Indarkeria sexistaren barruan, gehien aztertu den indarkeriaren formetako bat izanik, badaude gune sinbolikoekin nahiz adierazpideekin zerikusia duten kontzeptu desberdinak.

**Genero-Indarkeria**

Indarkeria sexista, edozein formatan agertzen dela, bikotearekin edo bikote ohiarekin erabiltzen denean, genero-indarkeria dela esan dezakegu. Horixe da Estatuko Aldizkari Ofizialean 2004ko abenduaren 29an argitaratu zen *Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan* agertzen den definizioa: "... ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan, ... erabiltzen duten indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu- askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere".

Halaber, genero-indarkeriaren biktima kontzeptuaren esanahia ere zabalduko da, umeak eta nerabeak biktimaren kontzeptu horretan sartzeko, eta sufritzen duten indarkeria horren garrantzia azpimarratzeko. Izan ere, umeak eta nerabeak amari tratu txarrak ematen dizkion erasotzailearekin bizitzeak, horien aita biologikoa izanda ala ez, adingabeek indarkeria sufritzea dakar. Kontzeptu horretan, beraz, indarkeriari aurre egiten dion emakumearen kargu dauden adingabe guztiak sartuko dira.

**Sexu-indarkeria**

Sexu-indarkeria indarkeria matxistaren formetako bat da. Hala ere, egungo kontzeptu juridikoak integratu ahal izateko, indarkeria sexistaren barruan hiru sexu-indarkeria mota bereizi behar ditugu:

- Sexu-erasoak: Indarkeria eta larderia erabilita gertatzen direnak.

- Sexu-abusuak: indarkeriarik eta larderiarik gabe gertatzen direnak. Honen barruan kokatuko ditugu, ahalmen kognitiboa zein intelektuala murriztua izateagatik, testigantza eman ezin duten emakumeek jasandako abusuak.

- Sexu-jazarpena: Lanaren eta ikasketen esparruan, edo antzeko esparruetan, izaten diren hitzezko jokabideak, hitzezkoak ez diren jokabideak eta baimenduta ez dauden sexu-izaerazko jokabide fisikoak. Jokabide horien helburua edota ondorioa emakumearen dinatasunaren aurka egitea da, edota haren aurkako beldurrezko giroa eta inguru iraingarria zein umiliagarria sortzea.

**Familiaren barneko indarkeria**

Indarkeria erabiltzen den espazioetako bat familia da; argi dago beste espazio batzuetan ere izaten dela. Dena den, merezi du honi buruz hitz egitea, sexu/genero/sexualitatea sistema transmititzen duen garrantzizko egitura baita familia. Indarkeria matxista eta sexista ikasten, sortzen eta indartzen den gunea da, baita indarkeria errefusatzen den gunea ere.

Emakumea ala gizona izateak dakartzan desberdintasuna ez da familia-harremanetan egon daitekeen desberdintasun bakarra. Esaterako, adinagatik, hierarkiagatik, mendekotasun-egoerengatik eta zenbait lotura edo egiturengatik desberdintasun-egoerak egon daitezke. Horregatik da garrantzitsua indarkeriaren gune sinboliko nahiz erreal hau nabarmentzea.

Horrez gain, indarkeria-mota hau etxeko indarkeriarekin nahasten da sarritan, eta horrelaxe azaltzen da egungo legerian. Baliokideak izan arren, familiaren barneko indarkeria kontzeptuak azpimarratzen du, indarkeria nork erabiltzen eta nork jasaten duen zehazten dugunean, zenbaitentzat (emakumeentzat, umeentzat, nagusientzat, beharrizan bereziak dituztenentzat eta abar) familia arrisku-egitura dela.

## II. GENERO-INDARKERIA ETA SEXU-ERASOAK BIZI DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO ETA ESKU HARTZEKO PRINTZIPIO NAGUSIAK

**1.- Laguntza osoa eta pertsonalizatua**. Protokoloan aipatutako indarkeria bizi duten emakumeei, eta horien menpekoak diren pertsonei ematen zaien arretak kontuan hartuko ditu indarkeria egoera bakoitzetik sortzen diren beharrizan desberdinak. Horretarako, kasu bakoitzean gertatzen diren egoera pertsonalen eta sozialen arabera, egokienak diren zerbitzuak eta laguntzak jarriko zaizkie eskura.

a) Emakume bakoitza desberdina da, eta kasu bakoitzak esku-hartze zehatza behar du. Horregatik, informazioa ondo emateko eta deribazio egokia egiteko, erakundeetako langileek baliabideak ezagutu behar dituzte, hala udal baliabideak, nola aldundikoak, autonomikoak eta estatukoak. Emakume guztiek informazioa jasotzeko aukera berbera izan dezaten, hizkuntza desberdinetan eman ahal dela bermatu beharko da. Halaber, informazioa argi eta erraz ulertzeko moduan transmitituko da. Horrek esan nahi du informazio hori gradualki eta dosifikatuta emango dela, emakumearen beharrizan zehatzak eta pertsonalak kontuan hartuta, eta emakumearen egoerara egokituta. Informazioak eguneratuta egon behar du, eta ahal dela, paperean jasota (triptikoak; eskaera-adibideak, eta abar).

b) Berebizikoa da erakundeetara laguntza eskatzen heltzen diren emakumeen eskaera esplizituari zein inplizituari erantzutea. Beren diskurtsoa entzuteaz gain, indarra transmitituko diegu, baita ulertzen dugula ere: a) segurtasun sentsazioa handituko dugu; b) emakumeek izaten duten lotsak eta estresak behera egingo dute; c) "arraroak" direlako estigma minimizatu egingo da; d) indarkeria bizi arren, ate guztiak itxita ez daudela adieraziko zaie, baita egoera horretatik ateratzeko bidea aurkitu ahal dutela ere.

c) Erasotzaileak erabilitako abusu psikologikoa dela kausa, biktimak diren emakumeek beren buruarenganako konfiantza galtzen dute, baita ekimenetarako eta asertibitaterako ahalmenak ere. Ildo beretik, emakumeentzat prozesu zaila bezain nahasgarria izaten da erabakitzea eta

erabakiei eustea. Horrexegatik da berebizikoa emakume bakoitzak erabakiak hartzeko behar duen erritmoa errespetatzea.

d) Indarkeriaren biktimekin lan egiten duten profesionalek ulertu behar dute emakumeek, suntsipen psikologiko prozesu horretan, oso errealistak ez diren orainari nahiz etorkizunari buruzko itxaropenak eduki ahal dituztela. Halaber, erabil ditzaketen baliabideei buruzko itxaropenak ere eduki ahal dituzte, eta eskaera nahasgarriak zein desegokiak egin ahal dituzte. Langileek benetan dauden aukeretara egokitu beharko dituzte biktimaren eskaerak, emakumearen defentsarako estrategiak aterarazi beharko dituzte, eta emakumearen inplikazioa indartuko dute, maila guztietan aurrera egin ahal izateko.

e) Emakumearen arabera, suntsipen psikologikoaren prozesua aldakorra izan daiteke, horri zenbait aldagaik eta faktorek eragiten baitiote: zenbat denboraz jasan duen indarkeria eta horren bizipena, aurkitutako laguntzak, baliabide pertsonalak, aurre egiteko moduak, eta abar. Egon daitezkeen zailtasunek ez dute adierazten, inola ere, indarkeria jasan duten emakumeak bizitzako beste zeregin batzuetarako ezgai direla. Hori dela eta, beren bizitzetan mantendu eta bultzatu diren ahalmenak detektatu behar dira, normalizazio eta jabekuntza prozesuan lagungarriak izango baitira.

f) Zerbitzuak erabiltzen dituen emakumearen erabakiari dagozkion esku hartzeko ildoak zehaztu behar dira. Baliteke esku-hartzea emakumearen ziklo-prozesuko momentu kritikoetan izatea, aukera desberdinak baloratzen edo erabakiak hartzen dagoenean (bizitokia aldatzea; etxera, erasotzailearekin, itzultzea; babesteko agindua eskatzea erasotzailea etxetik atera dadin, eta abar). Erabakia edozein denik ere, indarkeria jasan duen pertsona horren ahalmenetara egokitzen den erabakia da, eta berak aukeratutakoa.

g) Bikote-harremanetan indarkeriaren biktimak diren emakume asko beren bizipenekin apurtzeko prozesuan daude. Beraz, kontrastatu egin behar dituzte autonomia pertsonala gradualki handitzen lagunduko dioten mekanismoak eta faktoreak. Hori dela eta, emakume batzuek bizipenekin

apurtzeko momentu desberdinetan baliabide desberdinak erabiliko dituzte, eta ondorioz, indarkeriarako joan-etorriko jokabideak egon daitezke.

h) Mekanismo honen helburua ez da zerbitzuetako profesionalak "zorabiatzea", ezta dauden baliabideekiko abusua erakustea ere. Emakumeak bizi duen prozesua da; batetik, dauden baliabideen funtzionamendua esperimentatzen eta lagunduko liokeen sarea ezagutzen lagunduko dio; bestetik, proban jarriko du bere autonomia pertsonala (adibidez, bizitza bakarrik antolatzeko eta seme-alaben kargu hartzeko bere ahalmena). Esku-hartzeak prozesu hori kontuan hartzeaz gain, ulertu eta bultzatu ere egingo du. Energia alperrik erabili den sentsazioa eduki ahal dute profesionalek, baina sentsazio hori desagertzen da, emakumearen erabakiek duten balioa onartzen dugunean. Bestalde, emakumeek barne herstura eta lotsa sentitzen dute, erabakitakoa aurrera eramateko kapazak ez baitira sentitzen. Gerta liteke horregatik zerbitzuetatik aldentzea, hau da, jabekuntza pertsonalerako prozesuetan ezinbestekoa den laguntzatik aldentzea.

i) Artatutako emakumeen erabakiak errespetatzea ezinbestekoa izango da esku-hartze prozesu guztietan, horrela lortuko baitugu konfiantza, eta emakumeei lagunduko diegu, prest daudenean, indarkeriari aurre egiten. Esku-hartzearen helburua emakumearen ahalmenak indartzea izango da, hau da, aldi baterako laguntza eragingarria izatea.

j) Kontuan hartu behar da herri txikietan anonimotasuna gordetzea zaila dela, eta horregatik, emakume askok ez dutela dagozkien udal zerbitzuetara jotzen, jendeak haien egoeraren berri izateak bere osotasun fisikoa arriskuan jarriko bailuke. Sarritan emakumeak ez dira zerbitzuen laguntzarik gabe gelditzen, inguruko herrietako zerbitzuen laguntza jasotzen dute eta. Hori dela eta, udalen arteko koordinazioa ere oso garrantzitsua da emakumeei laguntzeko, dagozkien zerbitzuetara hurbiltzen direnean.

**2.- Berdintasuna.** Arreta emakume guztiei eskaintzen zaiela bermatu beharko da, honako ezaugarriengatik inor baztertu barik: egoera zibila; orientazio sexuala; adina; sinesmena edo ideologia; gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kidea izatea; maila ekonomikoa; ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsorialak; edota beste edozein izaera pertsonal edo sozial. Era berean, beharrezko neurriak hartuko

dira, euren egoera pertsonal eta sozialarengatik laguntza osoa jasotzeko zailtasunak dituzten biktimen eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko, bereziki, ezgaitasunak dituzten emakumeen eta emakume etorkinen kasuan, euren egoera administratiboa edozein dela ere.

a) Batez ere, ezgaitasunak dituzten emakumeen informazioa eta baliabideak erabiltzeko eskubidea bermatzeko, kasu bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira (garraiorako laguntzak eta keinu hizkuntzako laguntzak eta interpreteak). Emakume atzerritarrek hizkuntzaren aldetik izan ditzaketen eragozpenak gainditzeko edo arintzeko neurriak ere hartuko dira. Emakume horiei gogoraraziko zaie zein garrantzitsua den erroldatzeko eskaera egitea, babes sozialaren sareko oinarrizko zerbitzuak jaso ahal izateko.

**3.- Prebentzioa**. Jasotako jarraibide multzoa aplikatuko da biktimen aurkako indarkeria-egoerarik errepika ez dadin. Biktimak izan daitezke bai emakumeak, bai beren kargu dauden umeak eta nerabeak, bai beraiekin bizi diren eta mendekotasuna duten pertsona helduak.

**4.- Adingabeen interesen defentsa**. Jarduera protokoloa aplikatzeko garaian, emakumeen kargu dauden adingabeei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatzeko. Beti hartu beharko da kontuan umeen eta nerabeen interes gorena, *Umeei eta nerabeei arreta eta babesa emateko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak* xedatzen duen moduan.

**5.- Jabekuntza eta normalizazioa**. Kasu bakoitzean hartzen diren neurri egokienek indarkeria bizi duten emakumeen autonomia bultzatzea eta bizimodu normalizatua lortzea izango dute helburu. Informazioak nahiz orientabideek ez dute salaketa bide bakartzat hartuko, eta gestio pertsonala eta indibiduala bultzatzen dituzte beste aukera batzuk eskainiko dira.

a) Horretarako, Gizarte-zerbitzuen eta Lanbideren arteko loturak sortu beharko dira, hala nola gizarteratzeko eta lanerako prestakuntza soziala bultzatzen duten bestelako zerbitzu batzuen artean ere. Horrela, prestakuntza edota

laneratzeko beharra duten emakumeak deribatu ahal izango dira, haien autoestimua handitzeko, eta tratu txarrekin duten harremana apurtzen laguntzeko.

b) Halaber, etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko mekanismoak zehaztu behar dira, segurtasun-arazoengatik nahiz bestelakoengandik beren bizitokia utzi behar dutenean, bizitza normalizatzen eta indarkeria-egoera apurtzen laguntzeko.

**6.- Eraginkortasuna eta arintasuna**. Protokoloak batzen dituen jarraibideak aplikatzeko, antolaketa eragingarria eta arina bermatu beharko da, urgentziazko egoeretan berehalakotasunez jokatzeko. Garrantzizkoa da, emakumeen egoeragatik urgentziazko esku-hartzea behar denean, zerbitzu batzuetako itxarote-zerrendei eustea ezinezkoa izango dela gogoratzea. Ordutegiak eta artatzeko aukerak zenbat eta malguagoak nahiz moldagarriagoak izan, orduan eta arinagoa, segurua eta eskuragarria izango da esku-hartzea emakumeentzat.

- Protokoloan aipatzen den indarkeria jasan duten emakumeek bigarren mailako biktimizazioa jasaten dute. Hori horrela, protokoloan aurreikusitako arreta eskaintzeko jarraibideak eta bideak betetzea, eta inplikatutako erakundeak koordinatzea, profesionalen ardura izango da; biktimek ez dute ardura hori izan behar.

**7.- Ahalik eta biktimizaziorik txikiena**. Protokolo honetan aipatu eta indarkeria jasan duten emakumeen bigarren mailako biktimizazioa ekidin beharko da. Beraz, erakundeen eta profesionalen esku-hartzeak dakartzan eragozpenak minimizatu egin beharko dira.

Ildo beretik, protokolo honetan aurreikusten diren jarraibideak eta ibilbideak betetzea, eta inplikatutako erakundeak koordinatzea, profesionalen ardura izango da; inola ere ez, biktimena.

## III. ESKU HARTZEKO ANTOLAKETA ETA GENERO-INDARKERIA NAHIZ SEXU-ERASOAK BIZI DITUZTEN EMAKUMEENTZAKO SARBIDEAK

### III.1. Esku-hartzearen antolaketa

Tratu txarrak bizi izan dituzten emakumeen esku hartze prozesuan zerbitzu desberdinek parte hartzen dute, emakumeen behar desberdin eta anitzei erantzuna ematen. Bere eskumen-mailagatik baliabideak honako hauek izan daitezke:

- ≥ Udal-konpetentziakoak, Udaletxearen barne departamentu edo sail desberdinetan antolatuta, eta, beraz, erakundeko barne koordinazio mekanismoak beharko dituzte.

- ≥ Foru-konpetentziakoak, udaleko zerbitzuetarako osagarria izan daitezke edota beste irtenbide bat (urgentziazko bizitokia, edo arreta juridiko eta psikologikoa).

- ≥ Erkidego edo estatuko konpetentziakoak, baina hauek udalerriko emakumeek daukaten aukera bakarra da (adibidez Ertzaintza, osasun-zerbitzuak, Epaitegia).

Zerbitzuen diseinua kontuan hartuta, honakoak izan daitezke:

- **Izaera orokorrekoak:** tratu txarren harrera egiteaz gain, biztanle guztien nahiz biztanle jakin batzuen eskari multzoa jasotzen duten balio anitzeko zerbitzu guztiak. Hauen artean Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Osasun Zerbitzuak (Familia- medikuntza, Pediatria eta Larrialdiak) eta Segurtasun indarrak (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) daude. Zenbait kasutan tratu txarrak izan dituzten emakumeentzako sail edo unitate espezifikoak egon daitezke.

- **Izaera berezikoa:** populazio baten edo arazo partikularren beharrizanei erantzuteko daude egituratuta. Genero indarkeria-arazoak dituzten emakumeak artatzeko urgentziazko egoetarako foruko laguntza psikologikoa, juridikoa eta egoitzetako harrera daude.

## III.2. Genero-indarkeria eta sexu-erasoak bizi dituzten emakumeentzako sarbideak

Eibarko emakumeek, esku hartze prozesua hasteko eta bizitzatik indarkeria ezabatzeko sarbideak desberdinak dituzte. Emakume horiek arreta jasotzeko zirkuituan sar daitezen, ahalik eta sarbide gehien egoteko ahalegina egingo da. Haietako edozein sarbidek gainerako zerbitzuekin lotzeko aukera eman behar dio emakumeari.

Gainera, indarkeria-motaren arabera sarbide batzuk detekzio-puntuak ere izaten dira. Detekzio-puntu hauek, kasu jakinetan eta ikuspuntu desberdinetatik lan eginda, funtsezkoak izan daitezke genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeekin esku hartzeko eta arreta emateko mekanismoak aktibatzen direnean. Hein handi batean detekzio-puntu hauen garrantzia zerbitzu desberdinetan lan egiten duen pertsonalaren menpe egongo da (indarkeria matxistarekiko sentsibilizazio eta inplikazio-mailagatik, hain zuzen ere), arazoa detektatu eta baliabide espezializatuetatara deribatzeko.

Eibarko sarrera-puntuak hurrengoak dira:

**1. UDAL ZERBITZUAK ETA SAILAK:**

**1.1** OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK

**1.2** UDALTZAINGOA

**2. FORU ZERBITZUAK**

**2.1** GIZARTE LARRIALDIETAKO FORU ZERBITZUAK

**3. AUTONOMIA-ZERBITZUAK**

**3.1** ERTZAINTZA.

**3.2** OSASUN-ZENTROAK. OSAKIDETZA- EIBARKO EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

**3.3** MENDAROKO OSPITALEA

**3.4** BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (SAV)

**3.5** **SATEVI (Eusko Jaurlaritzako 24 orduko Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua)**

**4. BESTELAKOAK:** *Mujeres al Cuadrado* eta Eibarko beste emakume-talde batzuk

Eibarko detekzio puntuen artean hurrengo organismoak edo zerbitzuak daude:

1. **LANBIDE enplegu zerbitzua**: 2008.urteko Lanbideko protokoloa kontuan hartuz, zerbitzu honetara hurbiltzen diren emakumeak, genero-indarkeria bizi izan dutenak, edo indarkeria mota hau bizi dutela antzematen zaien emakumeak, segituan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bideratuko dira, beti ere emakumeak adostasuna sinatuta ematen badu.
2. **HEZKUNTZA ZENTROAK**: Hezkuntza zentroek genero-indarkeria edo sexu-eraso baten aurrean zuzeneko arreta ematen ez badute ere, detekzio puntu garrantzitsu bat badira, eta baliabide espezializatu batetara bideratzen dituzte gertatutako egoerak.
3. **Hiritarrentzako zuzeneko arreta** ematen duten udal sailek genero-indarkeria eta sexu-erasoei arreta eskaintzen dieten udal zerbitzuei buruzko informazioa izango dute, eskatzen duten emakumeei emateko.

## IV. ESKU-HARTZEAREN EZAUGARRI OROKORRAK ETA ZERBITZU BAKOITZEKO ERANTZUKIZUNA

Genero-indarkeria kasuak desberdinak eta anitzak izaten dira. Hori dela eta, esku hartzeko, bi irizpide erabiliko ditugu, emakumeak edo zerbitzuetako langileek antzemandako arrisku mailaren arabera:

Urgentziazko arreta → Genero-indarkeria kasuetan
Urgentziazko arreta → Sexu-eraso kasuetan

Lehentasunezko arreta → Genero-indarkeria kasuetan
Lehentasunezko arreta → Sexu-eraso kasuetan

### IV.1. Urgentziazko arreta genero-indarkeria kasuetan

Urgentziazko egoeretan, *berehalako erabakia hartu behar da, eta egin beharrekoak ahal denik azkarren* egin behar dira, bai emakumeak berak arriskuan dagoela aitortzeagatik, bai honako arrazoiengatik:

a. Ageriko lesioak baditu (emakumeak onartu ala ez lesioak bikotekideak edo bikotekide izandakoak eragindakoak direla), nahiz eta bere bizitza edota bere segurtasun fisikoa zein emozionala berehalako arriskuan jarri ez.

b. Salaketa jarri badu edo jarri nahi badu.

c. Emakumeak etxetik berehala ateratzea erabaki badu.

d. Bikote harremana bukatu nahi badu, eta erabakiak emakumearen bizitza arriskuan jar dezakeela baloratzen bada.

e. Nahiz eta emakumeak jasan dezakeen arriskua onartu ez, zerbitzuko langileak arrisku adierazleak/sintomak nabaritu baditu, emakumeari esango dio zer gerta dakiokeen etxera itzuliz gero, edo oso denbora laburrean.

Kasu horretan, kontuan izan behar dugu emakumeak urgentziazko babes neurriak (abegi etxea, salaketa) bazter ditzakeela, bai arrisku balorazioarekin bat ez etortzeagatik, bai bere baliabide pertsonalak erabilita egoerari aurre egingo diola pentsatzeagatik. Beraz, zerbitzuko langileak emakumearen segurtasuna bermatzen saiatuko dira, eta honela jokatuko du:

- Emakumeari babesteko neurriak eta segurtasun plana eskainiko dizkio.
- Ofiziozko partea idatziko du.
- Kasuaren jarraipena egingo du.

- Bestalde, arriskuen balorazioak ez du emakumearen segurtasuna guztiz bermatzen. Hala eta guztiz ere, zerbitzuetako langileen esperientzia ezinbestekoa da jasotako informazioa kudeatzeko eta emakumeari hartutako erabakien ondorioak zeintzuk izan daitezkeen azaltzeko.

### IV.2. Lehentasunezko arreta genero-indarkeria kasuetan

Lehentasunezko egoera esaten dugunean, *berehalako erabakirik hartzeko beharrik* ez dagoen egoeraz ari gara hitz egiten. Arrazoi desberdinak egon litezke lehentasunezkoa, eta ez urgentziazkoa, izateko: baliteke emakumeak salaketarik jarri nahi ez izatea, bai salaketa lehentasunezko neurria izatea nahi ez izateagatik, bai erabakia hartzeko denbora behar izateagatik; baliteke, erasoa ekintza bakana edo soltea ez izatea, baizik eta emakumeak ulertu eta onartu behar duen istorio

baten partea, eta egoerari aurre egiteko estrategiak bilatu behar izatea; baliteke zerbitzu berezien etengabeko laguntza behar izatea, tratu txarrak ematen dizkion bikotearekin duen harremana apurtzeko, eta banatzeko; baliteke beste arrazoi batzuk ere egotea.

## IV.3. Urgentziazko arreta gertatu berri diren sexu-eraso kasuetan

Sexu-erasoa gertatu berria denean, urgentziak ezaugarri bi ditu

- Emakumeari egoera larrian ematea arreta.
- Erasoa izan eta 72 orduren barruan, erasotzailea identifikatu ahal izateko auzitegirako frogak jasotzea. 72 orduko epea era malguan ulertu behar da.

- Emakumeak zerbitzuren batera jo badu, erasoa izan eta 72 ordu pasatuta, arreta zerbitzu bakoitzaren protokoloen araberakoa izango da

- Era berean, emakumea lehen aldiz artatzen duen zerbitzuko langileak profesional guztiak koordinatuta egotea oso garrantzitsua dela azpimarratuko dio.

- Lehen aldiz artatzen duen zerbitzuan, idatzizko baimena eskatuko zaio emakumeari, zerbitzuak edota baliabideak eskaintzen dituzten gainerako entitateekin informazioa partekatzeko eta horietara bideratzeko, betiere, arreta hobetzeko asmoz.

- Emakumeak baimena ematen badu, lehen aldiz artatu duen zerbitzua beste zerbitzuekin jarriko da harremanetan, informazioa jaso eta esku-hartzea koordinatuko du.
- Emakumeak baimenik ematen ez badu, zerbitzuak arreta ematen jarraituko du. Hala ere, esku-hartzeak dirauen bitartean, beste zerbitzuen laguntza ere izatea komenigarria dela gogoraraziko zaio, bizi duen egoeratik ateratzeko lagungarriak diren baliabide gehiago eskuratuko baititu.

- Prozesura Kriminaleko Legeak 259. eta 262. artikuluetan aipatutako kasu guztietan, emakumea lehen aldiz jasotzen duen zerbitzuko langileak honakoa azaldu beharko dio: ageriko delitua badago, langilea legez dagoela derrigortuta Fiskaltzari, Auzitegi Eskudunari, Instrukzioko epaileari edo hurbilen dagoen poliziari gertatutakoaren berri ematera, gainerako entitateei egoeraren berri emateko eta dagozkion esku-hartzeak abian jartzeko.

**IV.4. Arreta gertatu berri ez diren sexu-erasoetan**

Lagin fisikoak eskuratzeko epeak gainditu dituzten sexu-erasoak, eta bestelako tratamendu batean detektatu direnak (ezkutatutako oroimen traumatikoa aktibatu denean, edota emakumeak gertatutakoa kontatzea erabaki duenean), dagokien zerbitzuak artatuko ditu; beharrezkoa bada, eta emakumeak baimena ematen du, gainerako zerbitzuetara bideratuko dira.

**IV.5. Informazio eta koordinazio eskariak esku-hartze prozesuan.**

- Gai honen ardura duen gizarte-langilea, Ertzaintza eta Eibarko Udaltzaingoa koordinatu egingo dira, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeei arreta hobea emateko, betiere, emakumearen idatzizko baimena izanda.

- Halaber, gizarte-langileek edota hezitzaileek, Ertzaintzak edo bestelako instantzia ofizialek hala eskatuz gero, dagozkien txostenak idatziko dituzte. Izandako esku hartzearen datuak zehaztuko dituzte, eta beraien ardura izango da fax bidez instantziei bidaltzea.

- Gizarte-zerbitzuetan erabiliko dituzten datu pertsonalak lagatzeko eta baimena idatziz jasotzeko formatuak 2. eta 3. eranskinetan aurkituko ditugu. Ertzaintzak erabiltzen duena, ordea, 4. eta 5. eranskinetan.

## IV.6. Esku-hartze prozesuaren amaiera

Genero-indarkeriaren ezaugarriak kontuan izanda, esku-hartzeak urgentziazko egoerei zein lehentasunezkoei erantzungo die, baita biktimaren etengabeko laguntza eskaerari eta zerbitzuetatik urruntzeko eskaerari ere. Beraz, esku-hartze prozesu ugari daude, zehatzak zein epe luzekoak.

Esku hartze bakoitzean, emakumeari informazioa emango zaio, berak eta bere mende daudenek erabil ditzaketen baliabideak zeintzuk diren jakiteko. Informazioa idatziz emango da, eta emakumeak jaso duela erregistratu egingo da, kasuaren jarraipen hobea izateko.

Nolanahi ere, kasuen jarraipena Gizarte-zerbitzuen ardura da. Jarraipena bertan behera gera daiteke emakumeak horrela eskatuz gero, hitzezko nahiz isileko adierazpenen bidez, honelako egoeretan: indarkeriaren zikloa apurtu edo bikote harremana bukatu duenean; laguntzarako beste sare bat duenean; bizilekua aldatu duenean; edo, bestelako gertaeraren bat dela eta, Gizarte-zerbitzuek esku hartzerik nahi ez duenean.

## V. GENERO-INDARKERIA ETA SEXU-ERASO KASUETAN ARRETA EMATEKO ETA KOORDINATZEKO PROZEDURAK

### V.1. ERTZAINTZA

Ertzaintzak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, horietako bat esku-hartze espezializatua ematea honelako kasuetan: ustezko genero-indarkeria kasuak, etxeko indarkeria, sexu-erasoen biktimentzako laguntza (emakumeari zuzendutako arretari dagokionez, aurreko kasuetako prozedura berbera jarraitu behar da). Ertzaintzak eskaintzen dituen zerbitzuak honakoak dira:

- Urgentziazko esku-hartzea
- Babes-aginduen eskaerak tramitatzea
- Salaketak jasotzeko 24 orduko zerbitzua
- Biktimentzako arreta-zerbitzu pertsonalizatua. Polizia-arretatik haratago doan arreta; izan ere, biktimaren aldikako jarraipena ere egiten da, eta, biktimaren beharrizanen arabera, bestelako baliabide batzuei buruzko informazioa ematen zaio.
- Telefono mugikorra (Bortxa) larrialdi deietarako.
- Polizia-babes neurriak. Emakumearen egoeraren arrisku-balorazioa kontuan hartuko da. Emakumearen zainketa puntuala izatetik etengabeko zainketa izatera.

V.1.1. <u>Jarduera erasoa gertatu den lekuan</u>

Biktimak eskatzen duenean, beste pertsona edo entitate batzuen salaketa dagoenean, edo udaltzaingora deitu denean, ertzainak biktimaren etxera edo biktima dagoen lekura abiatuko dira, eta, beharrezkoa den bitartean, bertan egongo dira.

Biktimak lesioak baditu, lesio arinak izanda ere, edo, agerikoak izan ez arren lesioak egon daitezkeelako susmoa badago, hurbilen dagoen osasun-zentrora edo

Mendaroko Ospitalera eramango dute emakumea. Gainera, lesio-parte ofiziala eskatu behar duela azalduko diote, salaketa egiten denean aurkeztu ahal izateko.

Osasun-zentrora joanez gero, ertzainak bertan egongo dira, osasun zerbitzuko profesionalek kontsulta amaitu arte, biktimaren beharrizanak ebaluatzeko eta Ertzaintzaren barne protokoloa abian jartzeko.

V.1.2. Jarduera sexu-eraso edo sexu-abusu kasuetan

Gertatu berri den sexu-abusu edo sexu-eraso kasuetan Mendaroko Ospitaleko urgentziazko zerbitzuetara eramango da emakumea.

Biktimari azaldu behar zaio ezin dela garbitu, ezta arropak aldatu ere. Halaber, sexu erasoa ahotik ere izan bada, ezin duela jan edota edan esango zaio. Polizia-taldeak ospitaleko auzitegi-medikua bertan egongo dela egiaztatuko du, azterketa medikua egitea, eta laginak jasotzea horrexen ardura izango baitira. Era berean, ekintzaren berri eta horri buruzko datu guztiak emango zaizkio auzitegi-medikuari.

Hori dena egin aurretik, sexu-erasoa edo genero-indarkeria jasan duen emakume bat eramango dutelako abisua emango dute ospitalera; emakumeari dauden baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazioa emango zaio, eta ospitalean utziko dute behar duen arreta jasotzeko.

Emakumeari ez zaio aitorpenik hartuko osasun arloko profesionalek emakumea aztertu arte. Biktima ospitalean ingresatu behar bada, salaketa ospitalean bertan hartuko da ahalik eta lasterren.

V.1.3. Arreta adingabeei

Biktimaren kargu adingabeak badaude, eta emakumeak ezin baditu zaindu, berak aukeratzen duen pertsonaren edo familiakoen ardurapean utziko dira. Horrela ezin bada egin, hitzartutako zerbitzu publikoekin kontaktatuko da (adingabeentzako Gipuzkoako Aldundiko zerbitzuak), beraiek har dezaten adingabeak zaintzeko ardura.

V.1.4. Salaketa jasotzea

Salaketa jasotzen denean, kontuan hartu behar da biktimaren egoera emozionala. Hori dela eta, segurtasunezko giroa sortu beharko dugu; emakumezko agente batek jasoko du salaketa, leku abegikor eta pribatu batean; lekuak aproposa izan behar du, bai biktimaren intimitatea gordetzeko, bai beste kontu batzuengatik sor daitezkeen etenik ez egoteko. Nolanahi ere, biktima aitorpena egiteko moduan ez dagoela sumatzen denean, etenak egingo dira beharrezkoa den guztietan. Salaketa eginda dagoenean, horren kopia bat emango zaio biktimari.

a. Auzi-jartzaileari informazioa

Biktimari salaketa jartzearen ondorioak zeintzuk diren azaldu behar zaio. Sexu-askatasunaren aurkako delituak daudenean, salaketa jartzea garrantzitsua dela azaldu behar zaio, erasotzailearen jarraipen judiziala egin ahal izateko.

Halaber, babesteko agindua eskatzeko aukera duela esango zaio. Gainera, hala salaketa jartzeko, nola babesteko agindua formalizatzeko, biktimari azaldu behar zaio etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten biktimentzako ofiziozko abokatu baten aholkularitza doan jasotzeko eskubidea duela. Biktimak aholkularitza juridiko hori jaso nahi duela adierazten badu, dagozkion gestioak ertzain-etxetik egingo dira, eta emakumeari esango zaio zenbat deboraz itxaron beharko duen abokatua heldu arte.

b. Babesteko aginduaren eskaera

Ertzain-etxean babesteko agindua eskatzen denean, urgentziaz osatuko da ekintzak egiaztatzeko atestatua edo txostena, delitu eta falta jakin batzuetarako epaitze arinaren prozedurari jarraiki.

V.1.5. Biktimari arreta

Biktimari bere bizitokira edo berak proposatutako bizitoki alternatibo batera (familiakoen edo lagunen etxera) lagunduko zaio, bere segurtasunaz kezkatuta badago, edota berak horrela eskatzen badu. Bestalde, beharrezkoa bada, bere kargu dauden seme-alaba adingabeei ere lagunduko zaizkie.

Horrelakoetan, bereizgarririk edo ikurrik ez duen auto batean eramango da biktima, eta berehalako beharrizanetan lagunduko zaio: urgentziazko osasun-zerbitzua, gizarte-zerbitzuak, bere etxera joatea, abegi-errekurtsoa, epaitegia (lehenengo agerraldian).

Biktimari gizarte-baliabideei eta zerbitzuei buruzko informazioa emango zaio, baita izapide desberdinak egiteko garraiorako udal laguntzari buruzko informazioa ere.

a. *Bizitokia edo urgentziazko bizitokia*

Emakumea akonpainamendua edo urgentziazko bizitokia behar badu:

- Urgentziazko Gizarte Zerbitzuetara deituko da 08:00etatik 22:00etara: 943 22 44 11. Gizarte-langile edo hezitzaile batek artatuko du deia, kasua aztertu, eta beharrezkoa izanez gero, pertsonal teknikoa bidaliko du.

- 22:00etatik 08.00etara 112 zenbakira deitu egingo da.

- Ordutegia edozein denik ere, 112ra deituz gero, Urgentziazko Gizarte Zerbitzuetako pertsonal teknikoa bertaratzeko eskatu behar da.

- Sistema hau urteko 365 egunetan dago martxan, baita asteko zazpi egunetan ere.

V.1.6. Informazioa ematea eta kasua Gizarte-zerbitzuetara bideratzea

Idatziz emango zaio biktimari dauden baliabideei eta bere eskubideei buruzko informazioa.

a. *Babesteko kautela-neurriak*

Biktimari babesteko kautela-neurriak eskatu ahal dituela azalduko zaio; adibidez, erasotzaileak leku jakin batean egotea edo bizitzea debekatzea: auzo, udalerri, probintzia edo leku-entitate batean, edo autonomi erkidegoan (Prozedura Kriminalaren Legea, 13. eta 544. artikuluak). Prozedura Kriminalaren Legea, 544. artikuluan aurreikusten den moduan, Babesteko Agindua eska dezakeela ere azalduko zaio biktimari. Gainera, honakoa ere eska ditzakeela azalduko zaio: ofiziozko abokatua, Doako Laguntza Juridikoa eta egon daitezken laguntza ekonomikoak.

b. *Zerbitzu espezializatuak*

Halaber, arazo-mota hauek artatzeko zerbitzu espezializatuak badaudela esango zaio (abegi-etxeak, laguntza juridikorako nahiz psikologikorako programak eta abar). Biktimari informazioa emateaz gain, beti gogoratu behar zaio oso garrantzitsua dela kasua Udal Gizarte-zerbitzuetara bideratzea.

Biktima gizarte-zerbitzuetako erabiltzailea ez bada, telefonoz kontaktatzeko gomendatuko zaio. Emakumea ados egonez gero (berehala edo Ertzaintzarekin lehenengo kontaktua izan ondoren adierazi du ados dagoela), gertatutakoaren berri emango da Eibarko Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetan. Gizarte-zerbitzuek polizia-taldearekin jarriko dira harremanetan, informazio gehiago batzeko eta hainbat arinen biktimari deitzeko.

c. *Idatzizko adostasuna*

Emakumea gizarte-zerbitzuetako erabiltzailea ez bada, idatzizko baimena eskatuko zaio, Ertzaintzak jasotako datuak gizarte-zerbitzuei lagatzeko. Halaber, gizarte-zerbitzuei idatziz eskatuko zaie biktimaren egoera hobetzeko beharrezkoa den informazioa. Bi izapide hauetarako Ertzaintzak dituen ereduak erabiliko dira.

V.1.7. Informazioa ematea eta Udaltzaingora bideratzea

Ertzaintzaren eta, Ermuko, Eibarko, Elgoibarko eta Mutrikuko Udaltzaigoen arteko koordinaziorako protokoloa handitzeari[2] dagokionez, honakoa dago erabakita: Eibarko ertzain-etxeak genero-indarkeria eta sexu-eraso kasu berriei buruzko informazioa lagako dio, hilean behin, Udaltzaingoari; horrela instantzia bietan egiaztatu ahal izango dute beharrezko datu guztiak dituztela. Udaltzaingoak biktimaren baten kasuari buruzko informazioa ez duela egiaztatzen bada, Ertzaintzak beharrezko datuak lagako dizkio (babesteko aginduak, bizitokiak eta abar).

Pertsona batzuk berehalako arriskuan egoteagatik, urgentziazko babesteko neurriak behar diren kasuetan, Ertzaintzak urgentziaz emango dio horren berri Eibarko Udaltzaingoari; biktimaren zein erasotzailearen argazkiak eta fitxak eduki bezain pronto, Udaltzaingoari bidaliko zaizkio. Beharrezkoa balitz, ertzainak eta udaltzainak bildu egingo dira, kasurik nahasgarrienak jorratzeko.

Kasu berriei buruzko informazioa trukatzeaz gain, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak ixteke dauden kasuak berraztertuko dituzte, datuak kontrastatzeko eta informazio gehiago lortzeko.

## V.2. UDALTZAINGOA

Ertzaintzaren eta Eibarko Udaltzaingoaren arteko koordinaziorako protokoloari dagokionez, honakoa dago erabakita: genero-indarkeria eta sexu-eraso baten biktima den emakumea Ertzaintzara deribatzen denean, interesdunarentzat egokiena den ertzain-etxera deribatuko da, dagokion salaketa egiteko, eta kasuaren azterketa edota atestatua egiteko.

[2] Udaltzaingoen eta Ertzaintza Koordinatzeko Batzordearen adostasuna lortu ondoren, 1997ko otsailaren aktaren arabera sinatu zen protokoloa aplikatzen hasteko, 2004-2007 zenbait kontu berrikusi eta eguneratu dira. Kontu horiek honakoekin dute zerikusia: Udalekin hiriaren erdialdeko mugak eta etxeko nahiz genero indarkeria.

Hala ere, Udaltzaingoak urgentziazko jarduerei buruzko informazioa emango dio Ertzaintzari, baita hilean behin informazioa partekatzen denean ere. Halaber, barne-parteen bidez Eibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei helaraziko zaie informazioa.

V.2.1. Lehen jarduera

Biktima Udaltzaingoaren dependentzietan azaltzen bada, edo horra telefonoz deitzen badu, edo udaltzainek *in situ* lehen jarduera bat hasteko beharra ikusten badute (kalean nahiz bizitokian), berehala deituko da Ertzaintzara, kasua deribatzeko, eta beharrezko laguntza emango dute Ertzaintza heldu arte.

Nolanahi ere, Udaltzaingora akonpainamendua edo bizitokia behar den genero-indarkeria edo sexu-eraso kasuren bat heltzen bada, jarduera honakoa izango da:

a. *Bizitokia edo urgentziazko bizitokia*

Emakumeak akonpainamendua edo urgentziazko bizitokia behar badu:

- Urgentziazko Gizarte Zerbitzuetara deituko da 08:00etatik 22:00etara: 943 22 44 11. Gizarte-langile edo hezitzaile batek artatuko du deia, kasua aztertu, eta beharrezkoa izanez gero, pertsonal teknikoa bidaliko du.

- 22:00etatik 08.00etara 112 zenbakira deitu egingo da.

- Ordutegia edozein denik ere, 112ra deituz gero, Urgentziazko Gizarte Zerbitzuetako pertsonal teknikoa bertaratzeko eskatu behar da.

- Sistema hau urteko 365 egunetan dago martxan, baita asteko 7 egunetan ere.

- Komenigarria da harremanetan hainbat arinen jartzea, bidaietarako behar den denbora laburtzeko (Urgentziazko Gizarte Zerbitzuak Donostian daude; handik Eibarrera heltzeko ordubete inguru behar da). Hori dela eta, zerbitzu

hau erabiltzeko beharra detektatu bezain laster, harremanetan jarri behar da, aldi berean bestelako izapide batzuk egin behar badira ere.

- Emakumeentzako zentroan bertan egoteko beharrezkoa den guztia dago, eta ez dago aparteko baliabiderik emateko beharrik.

- Emakume erabiltzaileari azalduko zaio Urgentziazko Gizarte-langileak Eibarko Gizarte-zerbitzuekin harremanetan jarriko direla, arreta ematen jarraitzeko.

b. Biktimari informazioa

- Emakumea salaketaren edo bizitoki aldaketaren aukeraz oso seguru ez badago, urgentziazko zerbitzuak horri buruzko informazioa eman ahal dio, zalantzak argitzeko.

- Horrelakoetan, eguneko zerbitzuaz baliatzeko gomendatzen da, gaueko zerbitzuak urgentziazko kasuetan baino ez erabiltzeko.

## V.3. OINARRIZKO GIZARTE-ZERBITZUAK

Eibarko Gizarte-zerbitzuetako oinarrizko unitatea da. Honako funtzioak ditu, besteak beste: informazioa ematea, balorazioa egitea, orientatzea, deribatzea, eta, behar izanez gero, Gizarte-babesaren sareko prestazioak eta zerbitzuak erabiltzeko izapideak egitea. Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetarako sarbidea Eibarko Udalaren bitartez egiten da, honek Emakumearen Delegazioa baitauka, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeak artatzeko.

## A. JARDUERA GENERO-INDARKERIA ETA SEXU-ERASO LEHENTASUNEZKO KASUETAN

V.3.1. Emakumea beste zerbitzu batetik bideratu duten kasuetan

Ertzaintzako nahiz Udaltzaingoko genero-indarkerian espezializatutako taldearen jakinarazpena jasoz gero, kasu bat dagoela eta emakume batek Gizarte-zerbitzuetako baliabideren bat behar duela esateko, Gizarte-zerbitzuek polizia-taldearekin jarriko dira harremanetan, informazio gehiago biltzeko, eta biktimari hainbat arinen deitzeko.

V.3.2. Emakumeak Gizarte-zerbitzuetara jotzen duen kasuetan

Biktima Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetara hurbiltzen bada, dauden baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa emango zaio. Informazio hau argia eta ulergarria izango da, eta emakumearen beharrizanetara egongo da egokituta. Informazioa eguneratuta egongo da, eta ahal dela, paperezko euskarrietan eskainiko da (izen-emate-orrien ereduak, baliabideei buruzko informaziorako triptikoak, eta abar), horrela, emakumeari errazagoa izango zaio jasotzen duen informazioa ulertzea. Zerbitzu bakoitzaren kokapena argi eta garbi azalduko da, hala nola horietara ailegatzeko modua eta oinarrizko prozedurak (behar den dokumentazioa; izen-emate epeak; arreta-ordutegiak eta abar). Beharrezkoa balitz (laguntza-sarerik ez dagoenean; autonomia oztopatzen duen egoera emozionala; hizkuntza ez jakitea, eta abar) emakumearekin joango da behar duen zerbitzua dagoen lekura.

V.3.3. Emakumeak telefonoz deitzen duen kasuetan

Emakumeak, informazioa jasotzeko asmoz, telefonoz deitzen duenean, eta urgentzia dagoela adierazten ez badu, administrazioak bere izen-abizenak eta telefono zenbakia jasoko ditu, eta gizarte-langile bat esleituko zaio. Gizarte-langile horrek ahalik eta arinen jarriko da emakumearekin harremanetan. Telefonoz hitz egiten denean, beharrezko informazioa jasoko da, emakumeak beharko dituen baliabideak zeintzuk diren aurreikusteko. *Dualia* itzulpen zerbitzua erabiliko da euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten ez dakiten emakumeekin.

V.3.4. <u>Lehen elkarrizketa</u>

Lehen elkarrizketaren helburua emakumeari laguntza eskaintzea izango da. Era berean, informazioa emango zaio, laguntzeko prestutasuna adieraziz, dauden baliabideak eta soluziobide desberdinak zeintzuk diren jakin dezan. Kontuan hartu behar da, emakumeak gizarte oso-osoko laguntza jasotzeko eskubidea duela, baita bere guraso-agintean eta jagoletzan dauden adingabeek ere. Bere segurtasuna eta seme-alaben segurtasuna bermatzeko baliabide guztiak erabiliko direla azaldu behar zaio.

Lehentasunezko nahiz urgentziazko kasuetan, genero-indarkeria eta sexu-eraso kasuetarako dauden baliabideei buruzko informazioa emango zaio emakumeari: udal baliabideak, aldundikoak, autonomikoak eta estatukoak (juridikoak, psikologikoak, ekonomikoak, sozialak eta hezkuntzakoak, bizitokia, enplegua eta abar). Bere kasuan, dagozkion gestioak erraztuko dira, zerbitzu horietan sartzeko, eta beharrezkoa izanez gero, zerbitzu espezializatu batera edo antzeko zerbitzu batera deribatuko da.

V.3.5. <u>Emakumeak prozesu aurreko aholku juridikoa behar duenean</u>

Emakumeak prozesu aurreko aholku juridikoa behar badu, gizarte-langileak Genero-indarkeria, Etxeko indarkeria eta Sexu-erasoen Gipuzkoako[3] Ofiziozko Txandara deribatuko da, honako pausu hauek kontuan hartuta:

- Emakumeari zerbitzu horri dagokion eskaera-orria ematea.
- Eibarren edo hurbilen dagoen udalerriko erreferentziazko abokatu bat esleitzea.
- Horren berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiko Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Laguntzako eta Gizarte Larrialdietako Zerbitzuan. Horretarako honako datuak zehaztu beharko dira: izena eta abizen biak,

[3] 2008ko abenduaren 28an sinatu zen Abokatuen Elkargoaren eta Gizarte-zerbitzuen Sailaren arteko hitzarmenean abokatuaren bulegoan kontsulta bat egingo dela aipatzen da; kontsulta hau salaketa egin aurretik izango da, genero-indarkeria edo sexu-erasoaren biktimak salaketa egitearen ondorioak zeintzuk diren jakin dezan, eta aholkularitza jaso ondoren erabaki dezan.

NANaren zenbakia, emakumearen zein esleitutako abokatuaren helbide osoak.

Emakumeari kontsultaren helburuari buruzko **informazioa emango zaio**: bere eskubideak nahiz zabaldu daitezkeen izapide eta prozedura juridikoak zeintzuk diren azalduko zaio: ekintzak poliziaren aurrean edo Guardiako Epaitegian salatzeko eskubidea; doako aholkularitza juridiko espezializatua jasotzeko eskubidea (salaketa jartzeko edo babesteko agindua eskatzeko); erasotzailea urruntzeko eskatzeko eskubidea, banaketa zibilerako behin-behineko neurriak eskatzeko eskubidea; beharrezko baldintzak betez gero, Abokatuen Elkargoko Orientazio Juridikorako Zerbitzuen bidez, doako laguntza juridikoa eskatzeko eskubidea; 35/1995ko Legean jasotako laguntzak Delituko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren bidez eskatzeko eskubidea.

Halaber, biktimari Babesteko Agindua eskatu ahal duela eta komenigarria izan daitekeela **azalduko zaio,** epaitegiak, bidezkotzat hartzen badu, babesteko zigor neurriak har ditzan- behin-behineko espetxealdia, erasotzailea urruntzea eta abar- edo neurri zibilak har ditzan- erasotzaileari bizitokia erabiltzeko debekatzea, seme-alabekiko eskubideak mugatzea, mantenu-pentsioa zehaztea, eta abar-. Horretarako gizarte-zerbitzuetan eskatu ahal ditu dagozkion laguntzak.

Emakumeari Babesteko Aginduak salaketa baten izaera duela **azpimarratuko zaio.** Gainera, Babesteko Agindua Ertzaintzan eskatzea komenigarriagoa dela azalduko zaio, Legeak gizarte-zerbitzuetan eskatzea ahalbidetzen duen arren. Izan ere, Ertzaintzan bertan eskatuz gero hainbat izapide ekidin egingo dira, eta horrela, agindua arinago emango da (emakumea eta erasotzailea epaitegian agertzen direnean, goitik jota, 72 orduko epean)

Babes Agindua eskatzeko beharrezko **informazio guztia** behar duela azalduko zaio. Hori dela eta, gizarte-zerbitzuetatik, polizien dependentziatik edo epaitegitik Abokatuen Elkargoko laguntza juridiko espezializatua eskatu ahal duela esango zaio.

V.3.6. Gizarte-zerbitzuetan Babesteko Agindua eskatzea

Azalpenak eman ondoren, biktimak Babes Agindua gizarte-zerbitzuen bidez eskatu nahi badu, berriz ere gogoraraziko zaio abokatuen laguntza espezifikoa edukitzea komeni zaiola, eta gizarte langilea jarriko da harremanetan zerbitzu horrekin.

Biktimak zerbitzu hori erabili nahi ez badu, gizarte-langileak lagunduko dio emakumeari Babesteko Aginduaren eskaera-orria betetzen; eskaera-orri horren eredua eskuragai izango da gizarte-zerbitzu guztietan. Babesteko Agindua eskatzeko orria bete ondoren, gizarte-langileak kopia bat emango dio eskatzaileari, beste kopia bat gizarte-zerbitzuetan geratuko da, eta originala Guardiako Epaitegira igorriko da.

Zigor Kodearen 153. artikuluan jasotzen den moduan, Babesteko Aginduak epaileak berak onartu ahal du ofizioz, edota Fiskaltzak eskatuta.

Halaber, beste pertsona batzuek ere eska dezakete Babesteko Agindua, biktimarekin honako ahaidetasun-harremanetako bat izanez gero: ezkontidea edota biktimarekin antzeko harremana eduki duen edo daukan pertsona; ezkontidearen edo bikotekidearen seme-alabak, tutoretzapekoak, ondorengoek edo biktimarekin bizi diren eta ezgai diren pertsonak (guraso-agintepean, tutoretzapean, kuradoretzapean, familia-abegipean edo egitatezko zaintzapean daudenak). Kasu horretan ere lagundu beharko zaio eskatzaileari, Babesteko Aginduaren eskaera-orria betetzen, eta aurreko paragrafoan azaldutako prozedura jarraituko da, betiere, poliziaren dependentzietan edo epaitegian egin nahi ez duela adierazi badu.

V.3.7. Emakumeak salaketa ez jartzea erabakitzen duenean

Biktimak salaketa jarri nahi ez badu, edota Babesteko Agindua eskatu nahi ez badu, Erakundeen arteko II Akordioko III eranskinean topa daitezkeen ereduak erabiliko dira informazioa jasotzeko. Hala ere, gizarte-langileak egokien iruditzen zaizkion galderak egin ahal izango ditu, egoerari egokitutakoak, emakumeak eta bere kargu dauden adingabeen arrisku-egoeraren balorazioa egin ahal izateko. Beharrezkoa bada, eskudun agintaritzari (Guardiako Epaitegia edo Fiskaltza) ekintzen berri emango zaio. Hala ere, biktimari azaldu beharko zaio komenigarria dela berak

salatzea, edota berak Babes Agindua eskatzea. Izan ere, izapide horiek, eskubidea izateaz gain, jasaten ari den indarkeria-harremana apurtzeko balio du, baita Justizia Administrazioko babes-mekanismoak erabiltzeko ere -erasotzailea urruntzea, polizia-babesa, seme-alabekiko aitaren eskubideak etetea, bizitokia erabiltzea, mantenu-pentsioa eta abar-.

Era berean, erakundeko langilea denez gero, biktimari azalduko dio legez dagoela Epaitegian ekintzen berri ematera behartuta, baita hori egin ezean, erantzukizun penala izango duela ere. Hala ere, itxaron ahal da epaitegian kasuaren berri emateko, izapide horiek, egoera jakin batengatik, emakumearen osotasun fisikoa eta segurtasun pertsonala arriskuan jarriko dutela ikusten bada; horrelako egoera batean izapideak atzeratuko egingo dira[4].

Biktimak salaketa ez jartzea erabakitzen duen kasuetan, edo beharrezkotzat jotzen bada, abenduaren *28ko Genero-indarkeriaren aurkako oso-osoko Babes emateko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoa*ren 19.4. artikuluari jarraiki, Gizarte-zerbitzuek urgentziazko neurriak eskatu ahal izango dituzte epaitegian. Eskaerak Fiskaltzaren bidez tramitatuko dira.

V.3.8. <u>Emakumeak, egoera baloratu ondoren, urgentziazko bizitokia behar duenean</u>

Emakumea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako bulego-ordutegiaren barruan agertzen bada, eta urgentziazko bizitokia behar badu, udal abegi-etxean urgentziaz sartzeko izapideak abian jarriko dira, betiere horren funtzionamendua erabakitzen duen organoak ezarritako irizpideei jarraiki[5]. Beharrezkoa bada, abegi-etxearen barne

[4] IV. atalean sakonago aztertuko da ofiziozko salaketa.

[5] Eskualdeko batzordea izango da aurkeztutako kasuen balorazioa egingo duen organoa. Halaber, abegi-etxean sartzea baimendu eta egonaldia luza daitekeen erabakiko du. Eibarko Udaleko batzordea izango da. Eskaera jaso ondoren 48 orduko epea izango du biltzeko. %Bost batzordekidek osatuko dute, eta batzordea biltzeko, gutxienez, 3 batzordekide behar izango dira.

Honako hauek osatuko dute batzordea:

Eibarko Udaleko Osasun eta Ongizate batzordeko Presidenteak edo ordezteko berak aukeratutako pertsonak; eskualdeko beste udalerri bateko Ongizate batzordeko Presidenteak edo berak aukeratutako ordezkoak; Eibarko Udaleko Emakumearen Saileko Teknikari arduradunak; Kasua aurkezten duen udalaren arduradun teknikoak; eskualdeko teknikarien artean aukeratutako teknikari batek eta horren ordezkoak.

araudia irakurriko da emakumearekin, eta berarekin formalizatuko da bertan sartzeko eskaera.

V.3.9. Laguntzeko baliabideak erabiltzea

Emakumeari gogorarazi behar zaio dauden baliabideak erabiltzeak egoera gainditzen lagunduko diola, batez ere, laguntza psikologiko espezializatua emateko udal programak. Emakumearen autonomia eta autoestimua indartuko da denbora guztian, baita erasotzaileak behartuta emakumeak bizi izan duen isolamendua ekiditeko neurriak ere. Laguntza Psikologikorako Zerbitzua erabili nahi badu, oinarrizko Gizarte Zerbitzuek gestionatuko du hitzordua.

Detektatzen bada Laguntza Psikologikorako Zerbitzua ez dela emakume jakin batentzat egon daitekeen baliabiderik onena, dagokion anbulatoriora edo Osasun Mentaleko Zentrora deribatzeko aukera aztertuko da, betiere emakumearen adostasunaz. Gizarte-langileak inplikatutako profesionalekin nahiz jarraipena egingo dutenekin koordinatuko da.

Emakumeentzako arreta zerbitzuko arduradunak kasuaren jarraipena egingo du prozesu osoan zehar, gainerako zerbitzuekin eta biktimei arreta emateko programekin koordinatuta, emakumeei eta haien seme-alabei bizitza normalizatua lortzen laguntzeko.

## B. JARDUERA SEXU-ERASO ETA GENERO-INDARKERIA URGENTZIAZKO KASUETAN

### B.1. Gizarte-urgentziak gizarte-zerbitzuetako ordutegitik kanpo

Gipuzkoan hiru bide daude genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeekin urgentziazko jarduerak abian jartzeko. Hiru bide horiek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailaren barruan kokatzen dira. Zerbitzu horietan egoeraren berehalako balorazioa egiten dute; erasoa izan den lekura hainbat arinen joaten den teknikariak egiten du balorazioa, eta deribazio egokiena proposatzen du, emakumearen eta horren seme-alaben beharrizanak kontuan hartuta.

Oinarrizko Gizarte-zerbitzuetako ordutegitik kanpo dagoen berehalako esku-hartzea behar den kasuetan, edota asteburuetan, Ertzaintzaren zerbitzuen bidez, aukerako bide bi zabalduko dira:

- Urgentziazko foru gizarte-zerbitzuak

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten Gipuzkoako emakumeentzako urgentziazko eskaerak artatzen ditu. Balorazioa egin ondoren, eta beharrezkoa bada, biktimarekin joango dira abegi-etxera, emakumearen ohiko bizitokia non dagoen kontuan hartuta.

24 orduz funtzionatzen du: 08:00etatik 20:00etara zerbitzu presentziala da; 22.00etatik 08:00etara pertsona-bilagailuaren bidezkoa da. Baliabide honen erabilera 112 (SOS-DEIAK) zenbakira deituta aktibatzen daiteke.

- Larrialdietarako Foru Aldundiko Harrera Zentroa (URRATS)

Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen Gipuzkoako biktimei, nahiz bere ardurapean dauden familiako pertsonei, berehalako harrera ematen zaie zentro honetan bizitokia utzi behar dutenean.

- SOS- Deiak

Hirugarren bidea 112 telefono zenbakia da. Emakumeak berak aktibatzen du, deitzen duenean. Emakumeak eskatzen duenaren arabera aktibatuko dira arreta emateko beharrezko baliabideak (polizia, anbulantzia ...).

Indarkeriaren biktima den emakume batek Larrialdietarako Foru Zerbitzura jotzen duenean, eta beharrezkoa denean, Eibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei horren berri emango zaie, zerbitzu biek baterako lan-plana osatzeko.

Emakumea Eibarrera itzultzen bada, bertako Oinarrizko Gizarte-zerbitzuek egingo dute kasuaren jarraipena, dagozkion deribazioak eginda, eta honako kasuetan:

- Emakumeari alta eman zaio, eta Eibarrera itzuli da.
- Arrisku-mailak behera egin du, eta udalerrira itzuli.

**B.2. Jarduera Gizarte-zerbitzuetan urgentziazko kasuetan**

Emakume bat Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara jotzen duenean honako jarraibideak hartuko dira kontuan:

a. *Osasun-laguntzarako akonpainamendua*

Biktima lehen aldiz azaltzen bada gizarte-zerbitzuetan, eta osasun-laguntza behar badu, edota agerikoak izan ez arren, lesioak dituelako susmoa badago, berarekin joango da dagokion osasun-zentrora. Halaber, lesio-partea eskatu behar duela azalduko zaio, salaketa egiten duenean aurkeztu egin ahal izateko. Emakumearen osotasun fisikoa arriskuan badago, Ertzaintzaren laguntza eskatuko da.

Sexu-erasoa edo abusua egon bada, *SOS-Deiak*era joko da, dagozkion izapideak egin ditzaten (anbulantzia bidaltzea, polizia bertaratzeko eskatzea ...). Biktimari Mendaroko Ospitaleko Larrialdietara laguntzeaz gain, ezin dela garbitu azalduko zaio, ezta arropak aldatu ere. Halaber, sexu erasoa ahotik ere izan bada, ezin duela

jan edota edan esango zaio, prozesu judizialean garrantzitsuak diren frogak gal litezke eta.

Biktimari azaldu behar zaio ezin dituela arropak aldatu, baita ezin dela garbitu ere. Halaber, polizia-taldeak ospitaleko auzitegi-medikua bertan egongo dela egiaztatuko du, azterketa medikua egitea, eta laginak jasotzea horrexen ardura izango baitira. Era berean, ekintzaren berri emango zaio eta horri buruzko datu guztiak azalduko zaizkio auzitegi-medikuari.

Ospitalera eramatekotan, aurreko zereginak egin aurretik, Gizarte-zerbitzuek ospitalera deituko dute abisua emateko. Ospitaleak edukiko du epaitegi-medikuari deitzeko ardura, horren ardura izango baita laginak hartzea eta azterketa medikua egitea.

Nolanahi ere, ekintzaren berri eta horri buruzko datu guztiak azalduko zaizkio auzitegi- medikuari.

b. *Osasun-laguntzarik behar ez denean*

Osasun-laguntzarik behar ez denean, lehentasunezko arreta egokia eman beharko zaio biktimari, haren egoera emozionala kontuan hartuta. Elkarrizketan hasierako informazioa lortzen saiatuko da, baita balorazioa egiten ere. Biktimari beharrekoa den aholkularitza emango zaio, eta jarduera-protokoloa modu argian eta errazean azalduko zaio: eman beharko dituen pausuak eta horien garrantzia arlo desberdinetan: osasun-zerbitzuetan, polizia-etxean, epaitegian, arretarako zerbitzuetan (erabil ditzakeen baliabideak).

Emakumeak seme-alabak baditu, eta balorazioan horiek arriskuan daudela ikusten bada, Gizarte-zerbitzuen eta Ikastetxeen Lankidetzarako Akordioa[6] aktibatuko da: horren bidez, eta ahalik eta lasterren, sare-lana jarriko da abian, adingabeen egoeraren balorazioa egiteko, babesik gabeko egoera batean dauden aztertzeko, eta babesteko urgentziazko neurriak zehazteko.

---

[6] Sare-lana: ikastetxeen eta gizarte-zerbitzuen baterako lana arriskuan dauden adingabeak artatzeko. Eibarren 2003an sinatutako lankidetzarako akordioa.

## V.4. OSASUN-ZENTROAK

Genero-indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima bat osasun-zentro batera doanean (bai lehen mailako arreta-zentroara, bai arreta espezializatua ematen den zentrora, bai larrialdietako zerbitzura), osasun-arloko profesionalek "Etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko osasun-protokoloa" erabiliko dute jarduteko.

### V.4.1. Lehen arreta eta urgentziazko arreta Osasun-zentroan

Lehen mailako arreta-zerbitzuak Eibarren honako osasun zentroak dira: Eibarko Osasun Zentroa; Torrekua Osasun zentroa. Astelehenetik ostiralera daude zabalik, 08:00etatik 20:00etara. Eibarko Osasun zentroa larunbat goizetan ere badago zabalik, 09:00etatik 14:00etara.

- Emakumeak lesio larriak baditu, balorazioa eta urgentziazko osaketa egingo dira. Emakumea estabilizaturik dagoenean, Mendaroko Ospitalera deribatuko da anbulantzia batean. Ospitaleari deribazio horren berri emango zaio.

- Lesioak arinak badira, eta emakumeak tratu txarren ondorioz direla zehazten badu, beharrezko osasun-arreta emango zaio (osaketak, diagnosi-probak ...). Kasu guztietan zaindu egingo da bere intimitatea. Lesio-partea osatu eta Eibarko Epaitegira bidaliko da. Emakumeak salaketa jarri nahi badu, Ertzaintzara deituko da, honek hartuko baitu akonpinamenduaren eta salaketa jartzeko prozeduraren ardura.

- Osasun arloko profesionalek emakumearen lesioak tratu txarren ondorioz direlako susmoa badute, eta emakumeak esplizituki horixe adierazten ez badu, profesionalek baloratu beharko dute gertatutakoa argitzeko hizketaldi sakonagoa eduki behar den, bezeroarekin duten harremanari lehentasuna emanez.

- Emakumearen istorio klinikoan tratu txarren zantzuak badaude, edota lesioak tratu txarren ondorioz direla pentsatzeko pisuzko arrazoiak badaude, emakumeari azalduko zaio Osasun Zentroa legez dagoela Epaitegian horren berri ematera behartuta.

- Emakumeak indarkeria sufritzen duela esplizituki azaltzen ez badu, eta istorioan horri buruzko zantzurik ez badago, istorio klinikoan jasoko da tratu txarren zantzuak sumatu direla. Kasu horretan medikuak egingo du kasuaren jarraipena: medikuaren eta bezeroaren arteko harremana indartzeko ahalegina egingo da, eta jasaten ari den egoerari etengabe erreparatuko zaio.

- Emakumeak laguntza psikologiko espezifikoa behar badu, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara deribatuko da, edo, kasuaren arabera, Osasun Mentaleko Zentrora[7].

V.4.2. Urgentziazko arreta Etengabeko Arreta Guneetan

Etengabeko Arreta Guneak (EAG /PAC) astelehenetik ostiralera daude zabalik, etenik gabe, 17:00etatik 08:00etara, eta asteburuetan 14:00etatik 08:00etara.

- Emakumeak lesio larriak baditu Mendaroko Ospitalera eramango da; osasun-zentroetan horrelako kasuetan erabiltzen den prozedura berbera erabiliko da. EAG dira anbulantzia eskatu behar dutenak, emakumea ospitalera eramateko. Halaber, lesioak arinak direnean ere, osasun-zentroetan horrelako kasuetan erabiltzen den prozedura berbera erabiliko da.

- Osasun-laguntza jarduerak irauten duen bitartean (frogak, diagnosiak ...), emakumearen intimitatea zainduko da. Osasun-laguntza eman ondoren, kontu judizialei erreparatuko diegu.

- Emakumeak esplizituki azaltzen badu eta salaketa jarri nahi badu, Ertzaintzara deituko da, horrek edukiko baitu akonpinamenduaren eta salaketa jartzeko prozeduraren ardura.

---

[7] Osasun Mentaleko Zentroan osasun mentalaren degradazioa (emakumearena, gizonarena, biena) dauden kasuez kezkatzen dira, bereziki salaketaren ondorioez kontzienteak ez direnean, hau da, salaketa bikote-harremanean integratzen denean, soluziobidea aurkitzeko bidea dela ulertu gabe. Halaber, horrelako kasuetan urruntzeko aginduak ezin dira bete, biek, biktimak zein erasotzaileak, etengabeko zaintza behar baitute. Hori dela eta, arlo horretako profesionalen iritziz, arreta berezia behar da horrelako kasuak arlo polizialean eta judizialena artatzeko.

- Etengabeko Arreta Gunean lesio-partea osatuko dute, eta emakumearekin batera irakurriko dute. Kopia bat emakumearentzat izango da; beste kopia bat eskuduna den Eibarko Epaitegira bidaliko da.

- Kasu guztietan erraztuko da emakumea Eibarko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin harremanetan jartzea.

- Emakumeak sexu-erasoa jasan badu, eta erasoaren ondorengo 72 orduko epea amaitu ez bada, Mendaroko Ospitalera eraman behar da. 72 ordu baino gehiago igaro badira, ordea, emakumeari osasun-laguntza ematen hasiko zaio (frogak, diagnosiak ...), eta lesio-parte espezifikoa osatuko da.

- Emakumeak laguntza poliziala behar badu, 112 telefono zenbakira deituta aktibatuko da.

## V.5. IKASTETXEAK

Ikastetxeek, hezkuntza-eragileak izanik, berebiziko zeregina dute genero-indarkeria prebenitzeko. Gainera, baztertezina den konpromisoa daukate, hala prebentzio goiztiarrean, nola egon litezkeen kasu guztien arreta egokian.

### V.5.1. Ekintzak

Genero-indarkeria prebenitzeko, eta Azaroaren 25a (emakumeenganako indarkeriaren nazioarteko eguna) kontuan hartuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, honako ekintzez arduratuko da, besteak beste:

1. Ikasleek "Beldur Barik" programa parte hartzea.

2. Ikastetxeetan emakumeenganako indarkeria gutxiesteko ekintzak bultzatzea, baita indarkeria hori bistaratzeko eta horri buruzko hausnarketa sortzeko ekintzak ere. Ikastetxe guztiek dute hezkuntzan inplikatutako estamentuekin gai hori lantzeko proposamen bat.

V.5.2. Prozedura

Detekzioa goiztiarrari begira, eta kasu bakoitzari dagokion arreta ahalik eta egokiena izan dadin, hezkuntza-arloak esku-hartze espezifikoa[8] izango du aurreikusten diren ustezko egoera bi hauetan:

A) Hezkuntza-komunitateko kideren batek, ikasle batek genero-indarkeria edo sexu-erasoak jasaten dituela jakin duenean, edo jasaten dituelako susmo sendoa duenean:

- Erasotzailea hezkuntza-zentroko ikasle bat bada, honakoak izango dira jarraibideak:

1. Ikastetxearen nahiz ikasleen identifikazio-datuak eta erasoari (eraso-mota eta larritasun-maila) buruzko informazioa jasotzea.
2. Lehen analisia egitea eta urgentziazko esku-hartzeak planifikatzea. Esku-hartzeak bermatuko du erasoa jasan duen ikaslearen berehalako segurtasuna, eta esku-hartzearen barruan egongo dira erasotzaileari dagozkion neurri zuzentzaileak.
3. Familiekin harremanetan jartzea, egoerari buruzko informazio gehiago jasotzeko; familiei hartutako neurriei buruzko informazioa ematea, eta salaketa jarri ahal dela azaltzea.
4. Informazio osoa lortzea, aztertzea eta kontrastatzea.
5. Informazioa kontuan hartuta, tratu txarrik egon den ala ez zehaztea, eta horri erantzuteko hezkuntza-neurriak hartzea.

[8] Arlo honetarako (hezkuntzarako) jarduera protokoloa zehazteko, honako iturriak erabili ditugu: *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko* ***Erakundeen arteko II Akordioa***; *Ikastetxeetan berdinen arteko indarkeria gertatzen denean jarduteko gida*. Esku-hartzea gidatzen duten printzipioak honakoak dira: Prebentzioaren garrantzia; Urgentziazko esku-hartzeak; esku-hartze koordinatua eta isilpekoa.

- Tratu txarra egon bada:

1. Hezkuntza-ikuskaritzari horren berri ematea (larritasun-mailaren arabera, bestelako instantzia batzuei ere horren berri ematea: gizarte-zerbitzuak, fiskaltza).
2. Lan-talde bat osatzea datuak aztertzeko eta jarduera-plan bat osatzeko: hartuko diren neurriak zehaztuko dira, eta inplikatutako pertsona guztiekin ekintza desberdinak burutuko dira (biktimarekin, erasotzailearekin, lekukoekin, familiekin eta hezkuntza-taldearekin).
3. Familiari hartuko diren neurriei buruzko informazioa ematea.
4. Hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa.

- Erasotzailea hezkuntza-komunitateko langilea denean:

